

# Azterketa egiten ari zara eta irakasleak ondokoari begira harrapatu zaitu

AINHOA LARRETXEAGA GIRRE

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak I. saria  
Berako Rikardo Baroja IP



Atzo besta egin nuen  
irri, muxu ta fereka  
lanari eta bestari  
ezin hartuaz oreka

eta nire buruari  
in nahi diot epaiketa,  
burua txorakeriaz  
oraintxe daukat beteta.

Nire lagun Andreari  
orain hasi naiz galdezka  
ikus ezazu Ainhoa  
ikus ezazu gordeka;  
gainditu beharra daukat  
lortu beharra dut beka,  
burua barren-hutsik dut,  
mahai gainean azterketa.

Azterketa ikusi dut  
eta ez da hain erraza  
«mesedez Andrea zure  
azterketa orain pasa».  
Hankak dardarean dauzkat  
eta pultsua beratza  
andereñoa ikusmiran  
harantza eta honantza.  
Azterketa erori zait  
eta lurrera balantza  
irakasleak jaso du  
hau da hau une garratza.  
Akabo aurtengo udan  
itsaso eta ondartzza,  
mariskorik ez da egongo,  
jan beharko kalabaza.